

ORDENANTZA FISKALA, LUXUZKO GASTUEN GAINENKO ZERGA ARAUTZEN DUENA: BINGO JOKOA

5. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluko VII. Kapituluko 179. artikulutik 183.era bitartekoetan xedatutakoaren babesean ezarri da, bi artikuluhoriek barne hartuta.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea subjektu pasiboak bingoaren jokoan sariak erdiestea da, eta sari horien zenbatekoa da tributuaaren xedea.

Subjektu pasiboa

3. artikulua.- Bingoaren jokoan sariak eskuratzen dituztenak dira zerga honen subjektu pasiboak, betiere galarazi gabe enpresa antolatzaileek behar den tributu-zorra jatorrian atxiki eta Ordenantza Fiskal honetan zehaztutako epeetan atxikipen guztiak Udaleko Ogasunari ordaintzeko duten betebeharra.

Zerga-oinarria

4. artikulua.- Zerga-oinarria bingoaren jokoan erdietsitako sariaren zenbatekoa izanen da.

Kuota

5. artikulua.- Zerga honen kuota zerga-oinarriari Ordenantza honen Eranskinean jasotako karga-tasa aplikatzearen emaitza izanen da.

Sortzapena

6. artikulua.- Zerga sortuko da bingo-jokoan irabazitako sariak noiz ordaintzen diren eta orduan bertan.

Zergaren kudeaketa

7. artikulua.- Jokoa antolatzen duten enpresek, tributuaaren atxikitzaileak diren aldetik, behar diren aitorten-likidazioak aurkeztu beharko dituzte hilabete bakoitzeko lehen hamar egunetan, Administrazioak emanen dien ereduaren arabera, eta zorraren zenbatekoa horretarako gaitutako bulegoetan edo Udaleko Diruzaintzan ordainduko dute.

Ezarritako epea amaituta aitortpena aurkeztu eta tributua ordaintzeak Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantzaren 76. artikuluan aurreikusitako berandutze-interesak eta errekarquak sortuko ditu.

Nahitaezko aitorten-likidazio hori ez aurkeztea tributuzko arau-hauste astuntzat joko da, 2/95 Foru Legearen 94.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalean ezarritakoari jarraikiz zehatuko da.

Udalak hilero egiaztatuko ditu aurkeztu zaizkion aitortenak. Halaber, egin beharreko likidazio osagarriak atxikipenak egin dituzten enpresei jakinarazi eta galdatuko dizkie.

TARIFA-ERANSKINA

Karga-tasa	
Hona ezarri den tasa:	% 8